



IKUSPEGI – IMMIGRAZIOAREN EUSKAL BEHATOKIAREN 20. URTEURRENA

Duela bi hamarkada, Euskal Autonomia Erkidegoko immigrazioa biztanleriaren % 3,2 zen, eta harrezkero, pixkanaka, % 12,4ra igo da. Horrek aldaketa soziala ekarri du, eta onura ekarri dio euskal gizarteari, demografia zein ekonomia aldetik. Hori guztia dakigu Ikuspegik denbora horretan aztertu eta kontatu digulako. Aurrean, erakunde honen 20. urtebetetzea ospatzen da.

“2003an atzerriko immigrazioaren fenomenoak hasiberria zen oraindik Euskadin. Garatzeko zegoen, eta lehengo fluxu garrantzitsuak hautematen hasi ziren, nahiz eta oraindik ez zen errealitate nabarmena kuantitatiboki”, azaldu du Julia Shershneva Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiaren zuzendariak 2019tik.

Hala ere, garai hartan “migrazio-fluxuak suspertzen hasi ziren, orain atzerritarrena”, gogorarazi dute Xabier Aierdik eta Cristina Blancok, biak Behatokiaren sortzaileak, 2003an. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak “etorkinen integrazioa bideratutako lehen administrazio-egitura sortu zuen Euskal Herrian”, azaldu dute Euskal Herriko Unibertsitateko soziologoek. “I. Immigrazioari buruzko Euskal Planaren aterkipean, sare bat osatu zen. Ikuspegiz gain, honakoak dilduz sare horretan: Etorkinen Integrazioarako Foroa; Heldu, arreta juridikorako; Biltzen, kulturarteko bitartekaritzarako zerbitzu gisa; eta Immigrazio Teknikarien Udal Sarea,

etortzeko zegoen egoerari aurre hartu zioten beste gizarte mugimendu batzuk ez gain, Harresiak Apurtuz bezalakoak, azterlanak egin, eta bertako biztanleen eta etorkinen arteko Bizikidetzaren ahalbidetzeko lanean ginenak”, gogoratu dute bi ikertzaileek.

Lan finkatua

Ikuspegik hainbat ikerketa-ildo lantzen ditu; horien artean, immigrazioarekiko jarrerari buruzko barometroa nabarmentzen da, urtero aurkeztzen duena. Bertako biztanleei egindako inkesta bat da, beren iritzia zein den eta euskal gizarteak immigrazioaren aurrean duen jarrera zein den jakiteko.

Era berean, hainbat gai lantzen ditu, hala nola integrazioa, gizarte- eta hezkuntza-esparrua, eskola-sistema, “bigarren belaunaldiak” deiturikoen integrazioa, lan-merkatua eta sarbidea, eta lan-baldintzak eta baldintza sozioekonomikoak.

Gainera, ikerketak egiten ditu bizikidetzaren edo immigrazio-planak eska ditzaketen beste erakunde publiko edo gizarte-erakunde batzuekin lankidetzan, besteak beste. Azken batean, Ikuspegiaren potentzialitateetako bat komunitatearekin eta komunitatearen alde lankidetzan lan egitea da.

JAIOBERRIEN HILERRI MUSULMANA GASTEIZEN

2021ean, Gasteizko Udalak, komunitate musulmanarekin elkarlanean, El Salvadorreko hilerrian musulmanen ehorzketetarako gunere bereizi bat erreserbatzea erabaki zuen. Horren ondorioz, lurrean ehorzteko gunere bat egokitu zuten, hiru korridoretan banatuta. Guztira, 87 hilobi daude, Mekako hiri sakratuarekiko modu perpendikularrean orientatuta. Hobi haietako 72 pertsona helduak lurperatzera bideratu zituzten, eta 15, adingabeak ehorzteko.

Gaur egun, eta “martxan jarri zenetik izan den jaioberrien heriotza-kopurua dela eta”, Espazio Publikoaren eta Auzoaren sailak lursail horiek zatitzea eta jaiobe-

rien ehorzketetarako erabiltzea erabaki du. Gasteizko Udalak zehaztu duenez, “gure udalerrian bizi den komunitate musulmanak emandako informazioaren arabera, hildako jaioberrien kopurua nabarmen hazi da. Jaioberri horiek heldu baten lursail berdinean lurperatzen dira eta, beraz, leku asko kontsumitzen da, benetako beharrik gabe. Egingo ditugun lanekin, espazio hori errentagarri bihurtu eta gorpu gehiago lurperatu nahi dira”.

Maiatzaren hasieran hasitako lanen arabera, helduenezako 72 lursailetatik 8 zatitu egingo dira, eta horietako bakoitzean 9 jaioberri lurperatu ahal izango dira.

ELKARTASUN JARDUNALDIAK 2024 ETA XVII. KULTURARTEKO TOPAKETA BERRIZEN

Ekainaren 4tik 9ra, 2024ko Elkartasun Jardunaldien eta XVII. Kulturarteko Topaketaren edizio berriak egin ziren Berrizen. Askotariko programazioa egon zen, eta immigrazioari eta giza eskubideei buruzko hausnarketa-guneak ez ziren falta izan, partaidetzarako eta lankidetzarako espazio komunak sortzen jarraitzeko eta udalerrian elkarrekin bizi diren kulturen arteko hurbilketa sustatzeko helburuarekin.

Jardunaldi horiek “Berrizko migrazio-proiektuen esperientziak” solasaldiarekin hasi ziren, eta Berrizen bizi diren edo bizi izan diren pertsona migratzaileen testigantzak jaso zituen.

Herritarrek parte hartzeko aukera ere izan zen zenbait tailerren bidez: henna, txirikordak, munduko kulturak...; eta baita munduko bazkariak dastatzeko aukera ere, ipuin kontalariekin, musikarekin eta dantzekin batera.



BERRI LABURRAK

ANIZTASUNARI ETA KULTURARTEKO HIRIARI BURUZKO UDAKO IKASTAROA

Donostiako Udalak "Etorkizuna hemen da: bizikidetzaren erronkak eta aukerak aniztasunean" ikastaroa antolatu du 2024ko irailaren 12an eta 13an Donostian, UPV/EHUren Udako Ikastaroen barruan.

Ikastaro honek gure inguruko hirien askotariko errealitateaz jabetzen lagundu nahi du; kulturarteko hiriaren erronka nagusiak identifikatu eta horiei heldu nahi die; XXI. mendeko hirietan jatorri desberdina duten emakumeen eta gazteen errealitate espezifikoei sakondu nahi du, eta ikasleak kulturartekotasuna sustatzeko gaitasun, narratiba eta ekintzetan trebatu nahi ditu.

Hizlari izango dira, besteak beste, Samira Goddi, Errenteriako Udaleko kultura-aniztasunaren, garapenerako lan-kidetzaren eta eskubideen azpiarloko teknikaria; Gemma Pinyol-Jiménez, Kulturarteko Cities proiektuaren esparruan Europako Kontseiluko aditua eta Kulturarteko Hirien Sareko koordinatzailea; eta Eduardo Ruiz Vieytez, Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko dekanoa.

Informazio guztia **hemen**.

★ **Eid mubarak**
guztiori!

Bildotsaren jaia ★

EID AL-ADHA

Joan den ekainaren 16an, eta hiru egunez, Eid Al-Adha edo Bildotsaren Jaia egin zen, Islamaren jairik garrantzitsuenak. ADOS Batzordearen aldetik, festa hau Euskadin edo beste leku batzuetan ospatu duten musulmanek egun seinalatu horiek gozatu izana espero dugu, familiarekin, lagunekin eta hurbileneko pertsonekin batera

ADOS Eusko Jaurlaritzak sortutako Aholku Batzorde bat da, euskal erakundeen eta Euskadiko Komunitate islamikoen arteko lankidetzara sustatzeko sortua. 2018ko apirilaren 14an eratu zen. Orduetik, urtean gutxienez bost aldiz bildu da. Batzorde horretan euskal erakunde guztiek eta komunitate islamikoetako kideek parte hartzen dute. Bileretan bizikidetzara sustatzeko lan egiten da, eta helburua da Euskadiko komunitate islamikoen arazoei irtenbideak bilatzea.



ADOS Aholku Batzordea
Comisión Asesora ADOS
اللجنة الاستشارية أَدوس

945 017 940
adosbatzordea@euskadi.eus
Navarra, 2 / 01007 Vitoria-Gasteiz

Euskadi, auzolana, bien común

